



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSARAKO OHARRA

ALDUNDIA, BEHARGINEK, HERRITARREK ETA ADITUEK EMONDAKO AHOLKUETAN “SAKONDUKO” DAUEN HERRITARREN PARTAIDETZARAKO PLAN BARRIA ARI DA PRESTETAN

- Ibone Bengoetxea foru diputatua Iraskunde, Gobernamendu On eta Gardentasun Batzordearen aurrera etorri da, partaidetzaren eta gardentasunaren ganean Aldundiak hartu dituan konpromisoen barri emoteko.
- Aldundiak jakinarazo dauenez, partaidetzaren ganeko “herritarren gida” ari da prestetan, eta hobekuntzak sartuko ditu, arazuko prozesuetan partaidetzea “irisgarriagoa eta erabilteko errazagoa” egiteko.
- Oposizinoak agindutakoa ez betetea aurpegiaratu deutso Foru Gobernuari, aurreko Legealdiko Herritarren Partaidetzaren ganeko Azterketen Batzordeak jasotako aholkuen aurrerapeneko txostena Batzar Nagusietan ez aurkeztearren.

(*Bilbon, 2020ko bagilaren 15ean*). Bizkaiko Foru Aldundiak, EH Bilduk eskatuta, aurreko Legealdiko Herritarren Partaidetzaren ganeko Azterketen Batzordeak emon ebazan “hamar aholkuen” betete mailea zein egoeratan dagon azaldu dau gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan. Ibone Bengoetxea Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Diputatuak azaldu dauenez, bere sailak Foru Gobernua herritarrei zabaltzeko eta jarraibide horreek beteteko “hainbat ekintza” bete ditu, eta 2020-2023 epealdirako Gizartearen eta Herritarren Partaidetzarako plan barrian ari da beharrian, beharginakaz eta herritarraz batera. Plan horrek aitaturako aholkuetan “sakonduko dau”.

2017-2019 epealdiko lehenengo planari jagokonez, Bengoetxeak adierazo dauenez, horren betete mailea “ertaina-altua” izan da, baina hurrengoak aholku gehiago jasotea aurreikusten da, herritarren eta Aldundiko beharginen aldetik, horretarako sortu diran laneko talde espezifikoen bitartez. Helburua, “ahalik eta erantzun gehien jasotea” da eta, horretarako, Aldundiak informaziorako mekanismoak indartuko ditu, sare sozialen bitartez, batez be.

Herritarren Partaidetzaren ganeko Azterketen Batzordeak emondako hamar aholkuak beteteari jagokonez, Bengoetxeak banan-banan azaldu dau horreen betete mailea. Holan, bere esku-hartzean adierazo dauenez, legealdi honetan “eguneratzen” joango dan “esperientzien mapea” egin da. Ganera, Aldundiak “foroetan” parte hartzen jarraitzen dau, beste esperientzia batzuk ezagutzeko, eta lehenengo plana herritarrei azaldu deutse. Planaren beharreko eta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ebaluazinoko 14 ildoak “jente guztiarentzat eskuragarri” dagoz Aldundiko webgunean.

Horrez gain, Bengoetxeak adierazo dauenez, Aldundiak herritarren partaidetzarako mekanismoetan “sakondu dau”, aurreko legealdian 13 adituz osatutako taldeak eskatu eban moduan. Aurtengo barrikuntzen artean, Aldundiaren webgunean, Aldundiak sartuko dituan arauzko prozesuen ganean “orientetako egutegia” egongo da, araudiak egiteko prozesuan partaidetzea errazteko helburuagaz.

Herritarren partaidetzea erraztuko daben tresnak eukitearen aholkuari jagokonez, herritarren partaidetzarako edegita dagozan kanal “guztien” barri emongo dauen eta “estrategia, ebaluazioa, metodologia eta kontsultarako materialak” jasoko dituan “gidaliburu” batean ari dirala beharrea azaldu dau foru diputatuak.

Amaitzeko, Aldundiak entzute aktiboko Bizkaitarren Sarea sortu eban, “ordezkaritza txikia daukien” taldeen partaidetzea hobetzeko helburuagaz. Ganera, arlo horretan behar egiteko bideak aztertu ditu beste administrazio batzuek (Eusko Jaurlaritza, Aldundiak eta Udalak). Mota askotako eragileak alkarlanean aritzeari jagokonez, Aldundiak “indartu egingo dau” alderdi hori. Une honetan, gizarte eta enpresa arloan “zabalik dagozan partaidetzarako 38 mahaitan” dabil beharrea.

Adituen taldeak “publizidade aktiboa aberastea” be eskatzen eban, eta horren inguruan, Bengoetxeak Bizkaia Gardena ataria sortu izana aitatu dau. Atari horrek hobetu egiten ditu bertako eukien “irisgarritasuna eta ulergarritasuna”, “grafiko interaktiboen, irakurketa errazaren edo barriro erabili daitekezan eukien” bitartez.

Oposizionoko taldeek, baina, kritikau egin dabe Aldundia Bizkaiko Batzarrek emon eben agindua betetera orain arte etorri ez izana. EH Bilduk aurpegiratu deutesenez, oraindino “ez dago argi” herritarrek “zelan hartu leikien parte”. Arantza Urkaregi batzordekideak “informazio kanpainak” eskatu ditu, arauak egiteko prozesuak edegiten diranean herritarrek horren barri izan daien, eta baita dinamismo handiagoagaz arituko dan partaidetzarako mapa bat be.

Amaya Fernández Talde Bereziko bozeroaleak, bere aldetik, 2018ko urriaren 24ko osokoan onetsi ziran 13 adituen aholkuen barri emoteko Batzarretara etorteko hartu zan akordioa bete ez izana Batzar Nagusien aurreko “errespetu faltea” dala esan dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Elkarrekin Bizkaiak, Aldundiko kudeaketan eragina izatea herritarrentzat benetako “ginkanea” dala esan dau, aztarna digitala jasaten daberen personentzat, “adinkoentzat edo baliabiderik ez daukientzat”, batez be.

Euskal Sozialistak Taldearen aldetik, Juan Oterminen azaldu dau igazko martian foru hauteskundeak deitu izanak justifiketan dauela atzerapena, baina, halanda be, Foru Gobernua ez dala geldik egon nabarmendu dau. “Gauzak ondo egin ditu, kudeaketea hobetuz, Bizkaia danon artean eregiteko”, gizarte “kritiko” baten bitartez.

Ildo horretan, Irene Edesa jeltzaleak aurreko legealdiaren amaiera eta Foru Gobernu barria sartu izanak antolakuntzan ekarri eban aldaketea dirala eta justifikau dau atzerapena. “Garrantzitsuena beharra, egin, egin dala da”, eta “Bizkaiko Batzar Nagusiek markau eben ibilbide orria jarraitzen ari dala”.

SU-HILTZAILEEN ZERBITZUA PORTUAN

Beste alde batetik, Elkarrekin Bizkaia taldeak eskatu dauen agerraldi batean, Israel Escalantek jakinarazo dauenez, joan dan zezeilean Saudi Arabiara joian Bahri Yanbu itsasontzian material “belikoa” kargetako operazio batean Aldundiko su-hiltzaileen zerbitzuko erretan bat Bilboko Portuan egon izanaren ganeko azalpenak emon ditu diputatuak.

Talde moreak egin dituan galderei erantzunez, operazio hori, suak itzaltzeko Aldundiko zerbitzuak IMO1 edukiontzia errotan dituen kargen garraioan lege bete behar dituan “larrialdien prebentziozko eta kontroleko betebeharren” barruan dagola adierazo dau Bengoetxeak. Operatiboak “40 minutu” iraun ebazan, eta Aldundiak “ez ekien” kargamendu hori nora joian.



NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN PREPARA UN NUEVO PLAN DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA QUE “PROFUNDIZARÁ” EN LAS RECOMENDACIONES DE PLANTILLA, CIUDADANÍA Y PERSONAL EXPERTO

- La diputada foral Ibone Bengoetxea comparece en la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia para dar cuenta de los compromisos forales adquiridos sobre participación y transparencia.
- La Diputación informa de que prepara una “guía ciudadana” sobre participación y de que introducirá mejoras para hacer “más accesible” la participación en los procesos normativos.
- La oposición afea al Gobierno foral su incumplimiento por no presentar en las Juntas Generales el informe de avance de las recomendaciones recogidas por la Comisión de Estudio sobre Participación Ciudadana de la pasada Legislatura.

(Bilbao, a 15 de junio de 2020). La Diputación foral de Bizkaia ha informado hoy en las Juntas Generales de Bizkaia, a petición de EH Bildu, del estado en el que se encuentra el cumplimiento de las “diez recomendaciones” hechas por la Comisión de Estudio sobre Participación Ciudadana de la pasada legislatura. La diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, ha explicado que su departamento ha completado una “serie de acciones” para garantizar la apertura del Gobierno foral a la ciudadanía y el cumplimiento de estas indicaciones, y que trabaja en un nuevo plan de Participación Social y Ciudadana 2020-2023 que “profundizará” en dichas recomendaciones, con ayuda de la plantilla y la ciudadanía.

En cuanto al primer plan 2017-2019, Bengoetxea ha señalado que su cumplimiento ha sido “medio-alto”, pero que esperan que el próximo pueda recoger nuevas recomendaciones, tanto de la ciudadanía como de la propia plantilla foral a través de grupos de trabajo específicos. Se trata de obtener las “máximas respuestas posibles” y, para ello, la Diputación reforzará los mecanismos de información, especialmente a través de las redes sociales.

En cuanto al cumplimiento de las diez recomendaciones de la Comisión de Estudio sobre Participación Ciudadana de la Cámara vizcaína, Bengoetxea ha detallado, una a una, en qué estado se encuentra el cumplimiento de las mismas. Así, en su intervención ha asegurado que se ha hecho un “mapa de experiencias” que se irá “actualizando” en esta legislatura. Además, la Diputación sigue participando en “foros” para conocer otras experiencias y ha



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

dado a conocer el primer plan de participación a la ciudadanía. Sus 14 líneas de trabajo y evaluación son “públicas y accesibles” en la web foral.

Asimismo, Bengoetxea ha señalado que la Diputación “ha profundizado” en los mecanismos de participación ciudadana como le pedía el grupo de 13 expertos en la legislatura pasada. Entre las novedades de este año, la web de la Diputación incorporará un “calendario orientativo” sobre los procesos normativos que la Diputación vaya incorporando con la intención de facilitar la participación en la elaboración de normativa nueva.

En cuanto a la recomendación de contar con herramientas que facilitasen la participación ciudadana, la diputada foral ha explicado que se trabaja en una “guía” que informe de “todos” los canales de participación ciudadana abiertos y que incluya “estrategia, evaluación, metodología y materiales de consulta”.

Por último, la Diputación creó la red escucha activa Bizkaitarren Sarea como medida para mejorar la participación de grupos “infrarrepresentados”. Asimismo, ha explorado vías de trabajo con otras administraciones (Gobierno Vasco, Diputaciones y ayuntamientos) en este sentido. En cuanto a la colaboración con agentes diversos, la Diputación “reforzará” este aspecto. Actualmente, trabaja en “38 mesas de participación abiertas”, tanto en el ámbito social como empresarial.

El grupo de expertos le pedía también “enriquecer la publicidad activa”, y Bengoetxea se ha referido a la creación del portal Bizkaia Gardena, que mejora de forma continua la “accesibilidad y comprensibilidad” de sus contenidos con “gráficos interactivos, lectura fácil o contenidos reutilizables”.

GRUPOS JUNTEROS

Los grupos de la oposición han lamentado que la Diputación no haya acudido hasta ahora a cumplir con el mandato del Parlamento de Bizkaia. EH Bildu ha afeado que todavía “no está claro” cómo la ciudadanía “puede participar”. Su apoderada Arantza Urkaregi ha pedido “campañas informativas” para mejorar el conocimiento de la ciudadanía cuando se abran procesos para elaborar normas y un mapa de participación que se actualice con mayor dinamismo.

Por su parte, la portavoz del Grupo Mixto, Amaya Fernández, ha señalado que es una “falta de respeto” a las Juntas Generales que se haya incumplido el acuerdo de esta Cámara sobre el estado de las recomendaciones de 13 expertos que se aprobaron en el pleno del 24 de octubre de 2018.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Elkarrekin Bizkaia, por su parte, se ha quejado de la “yinkana” a la que se somete a la ciudadanía para llegar a poder influir en la gestión foral, sobre todo, a aquellas personas que se encuentran afectadas por la brecha digital, como “mayores o personas sin recursos”.

Desde las filas del Grupo Socialistas Vascos, Juan Otermin, ha explicado que la convocatoria de la elecciones forales en marzo del año pasado justifica el retraso, si bien el Gobierno foral “no se ha quedado parado”. “Ha hecho las cosas bien, mejorando la gestión para que construyamos Bizkaia entre todos” a través de una sociedad “crítica”.

En esta línea, la jeltzale Irene Edesa ha justificado esta tardanza porque coincidió con el fin de la legislatura pasada y el cambio organizativo que supuso la entrada de un nuevo Gobierno foral. “Lo importante es que el trabajo se ha ido haciendo” y que éste “sigue la hoja de ruta marcada por las Juntas Generales de Bizkaia”.

SERVICIO DE BOMBEROS EN EL PUERTO

Por otro lado, la diputada ha explicado en una comparecencia solicitada por Elkarrekin Bizkaia, la presencia de un retén del servicio de bomberos foral en el Puerto de Bilbao en una operación de carga de material “bélico” en el buque Bahri Yanbu, con destino a Arabia Saudí en febrero pasado, según ha dado cuenta el juntero de esta formación Israel Escalante.

En respuesta a las cuestiones lanzadas por el grupo morado, Bengoetxea ha dicho que esta operación forma parte de las “obligaciones preventivas y de control de emergencias” que por ley debe llevar a cabo el servicio de extinción de incendios de la Diputación en el transporte de cargas IMO1 de mercancías peligrosas. El operativo duró “40 minutos” y la Diputación “desconocía” el destino de este cargamento.